ZUTXULO 461 zk. , 2004 - IX - 10



# Gazteentzako 115 etxebizitzen zozketa, urrian



Datorren hilean, gazteentzako babes ofizialeko 115 etxebizitza zotz egingo dituzte. Etxebizitzotatik 65 Intxaurrondon daude, Garbera merkataritza guhetik gertu. Gainerakoak –50 etxebizitza– Ibaetan egiten ari dira; Intxaurrondokoak ez bezala, ez daude bukatuta, baina Udalak urte erdi barru amaituta egongo direla dio.

Etxebizitza hauek guztiek 45 metro karratu dituzte eta errentan eskainiko dira. Honakoak propio gazteei errentan eskainitako babes ofizialeko lehen etxebizitzak dira Donostian. Hain zuzen, 22 eta 30 urte bitarteko herritarrei zuzendutako etxebizitzak dira denak. Gazteek 240 euroko alokairua ordaindu beharko dute hilean eta, gehienera, bost urtetan egon ahal izango dira bertan.

Guztira, 1.459 lagunek izena eman dute etxebizitza hauetako bat eskuratzeko. Haietatik, %42ak 25 eta 27 urte bitartean ditu.

Jorge Letamendia Hirigintza zinegotziak jakinarazi duenez, bestalde, etxebizitza hauetako bat eskuratzen dutenek babes ofizialeko gainerako sustapenetan ere parte hartzeko eskubidea izango dute.




# Edonostia.net-eko ikastaroak prest

Larratxoko Edonostia.net teknologia gunearen ikastaroetan izena emateko epea zabalik da. Argazkilaritza digitala, interneta, argazki zaharrak egokitzea, webguneen sorkuntza, merkataritza kudeaketa informatikoa eta beste hainbat ikastaro izango dira. Ikastaroak dohainik dira. Izena emateko edo informazio gehiago eskatzeko: www.edonostia.net gunera jo edo 902 077800 telefonora hots egin.

# Bidaiari asko autobusetan



Tranbia Konpainiaren ikerketa batek argitu duenez, Donostia, biztanle kopurua aintzat hartuta, autobus publikoetan bidaiari gehien duen Hego Euskal Herriko hiriburua da. Ikerketa egiteko iazko datuak erabili dituzte, eta horren arabera, donostiar bakoitzak 145 aldiz erabili ohi du autobusa urtero; iruñearrek 124 aldiz erabiltzen dute, bilbotarrek 123 aldiz eta gasteiztarrek 52 aldiz. Espainiako hiriburuekin ere alderatu dute Donostia, eta gureak beste edozein hirik baino batezbesteko altuagoa du. Donostiako Tranbia Konpainiak, guztira, 26.510.738 bidaiari izan zituen joan den urtean.

euskararen donostia
patronatua

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

**Antzerkia kalean**

• **Potxin eta Patxin mendian**
Irailaren 9an, 19.00etan
Altzako Jolastokietan

**Musika**

• **Ruper Ordorika**
Irailaren 10ean, 22.30etan,
Trinitate plazan

**Ikastaroak**

• **Komunikatu zaitez(II)**
Irailaren 14tik 17ra, 20an eta 21ean
10.00etatik-12.00etara
12 orduko ikastaroa
Altzako Teknologia Berrien Zentroan
www.edonostia.net
OHARRA: Euskarazko taldea osatzeko 8 lagun behar dira gutxienez

• **Argazkigintza digitalarekin lanean**
Irailak 18,19,25 eta 26
Urriak 2 eta 3
10.00etatik-12.00etara
12 orduko ikastaroa
Altzako Teknologia Berrien Zentroan
www.edonostia.net
OHARRA: Euskarazko taldea osatzeko 8 lagun behar dira gutxienez

euskaraz.net